

NUKFrako 2015-2019 PROGRAMA

SARRERA

Berriozarko asanbladaren ondoren sortu zen lantaldeak lanean jarraitu du ziurtatzeko gure aldarrikapenak instituzioetan aintzat hartuak izanen direla, Foru Legeen aldaketeei dagokienean. Asanblada hartan, lantaldeak mila baino hautetsi gehiagoren babesla lortu zuen; hauek ziren haien proposamenak: Mapa Lokalaren erreformaren proposamena geldiaraztea eta Nafarroako Toki Entitate guztien parte hartzea ekarriko zuen prozesu parte-hartzailea abiaraztea.

Gure ustez, hasi berri den legegintzaldi eta garai berri honetan, aldaketak egin beharko dira eta horretan paper erabakitzailea eta ezinbestekoa izan behar du Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak.

Pasa den legegintzaldian, Mapa Lokalaren Erreforma Tokiko Entitateentzat garrantzi handikoa izan da; Nafarroako Parlamentua erreforma egitekotan egon zen, tokiko erakundeen benetako parte-hartzerik sustatu gabe. Kasu askotan, gainera, erreformaren oinarrian tokiko gaitasunak eta gaitasun ekonomikoak txikitzea zegoen.

Mapa Lokalaren erreforma saiakera tokiko erakundeetako kide kopuru garrantzitsu batek gaitzetsi zuen, ez bakarrik egiten zituen proposamenengatik, baita erabili zen metodologiagatik ere. Kide hauek NUKFan bilatu zuten parte hartzeko modu bat eta aipatutako legearen tramitatzeaz eta informazioaz jabetzeko lekua. Toki entitateek, beraz, haien proposamenak bozkatuak izan zitezkeen eskatzen zuten, baina Federazioaren zuzendaritzak tokiko entitate hauek eskatzen zutenari ezezkoa eman zion. Hau dela eta, exekuzio-batzordeak duen lan egiteko modua ezbaian jarri zuen, eta Federazioa eraldatzeko proposamenak egiten hasi ziren.

Egun indarrean dagoen Mapa Lokalak uztailaren 2ko Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legean du oinarria, eta honetan eman diren aldaketetan ere, 2014ko abenduaren 2ra arte. Lege honek, Toki Ogasunek Nafarroako Tributuetan duten Parte-hartzeen Funtzarekin batera, zehaztasun eta konpromiso hutsuneak sortzen ditu Nafarroako Gobernuaren eta Tokiko Administrazioen artean. Honek Gobernuak entitate lokalei ematen dizkien laguntzen harreman desorekatua ekartzen du, eta udal eta kontzejuek eskaintzen dituzten zerbitzuak babesik gabe geratzen dira. Honi duela gutxi onartu den "Toki Administrazioaren Arrazionalizazioaren eta Iraunkortasunaren Legea"k ekarriko dituen ondorio ezezagunak gehitzen badizkiogu, gure ustez, beharrezkoa da Federazioak, erakunde independente eta gaian aditu gisa zeregin batzuk izan beharko lituzke: Nafarroako Gobernuaren toki

administrazioaren departamentuarekin batera prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzea, egun egoeraren diagnosi bat egiteko eta erreforma-proposamen bat egitea, gaur egungo klientelismoarekin bukatzeko eta mapa lokalaren erreformari abiapuntu bat emateko.

Maiatzaren 24ko hauteskundeak eta gero, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko exekuzio-batzordea konpromiso eta pertsona berriz osatzeko aukera heldu da.

Gure proposamenak bideratzeko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak Udal eta Kontzejuen interesak soilik ordezkatu behar dituela iruditzen zaigu, horrek beharko luke bere lehentasuna, gure ustez. Horretarako, zenbait bitarteko martxan jarri beharko dira honakoak lortzeko: demokrazia, parte-hartze, gardentasun eta integrazio maila handiagoak. Honetaz gain, zerbitzu hobea eman behar zaie federazioko kideei. Badakigu honek guztiak zailtasunak dituela eta gure lana etorkizunean ere hobetu daitekeela.

Helburuak

Helburu orokorra NUKF entitate independentea izatea lortzea da, eta Nafarroako Gobernuaren aurrean entitate lokalen interesak defendatzea. Horretako, hauek dira gure proposamenak:

- Federazioaren organoen hautaketa sistemak hobetzea.
- Parte-hartzea sustatzea.
- Kudeaketa gardena izatea.
- Hizkuntza-integrazioa bermatzea.
- Federazioko kideei ematen zaizkien zerbitzuak handitzea.

Federazioaren organoen hautaketa sistema hobetzea

- 1 Presidente, Presidenteorde eta gainerako exekuzio-batzordeko kideak aukeratzeko sistemaren gaur egungo ahultasunak:
 - a) Asanblada bakarrean hautatzen dira hauteskunderen ondoren.
 - b) Asanblada horretara joaten direnetatik, kopuru handi bat berria da eta lehenengo aldiz biltzen da asanblada horretara, hautetsi berriak direlako edo lehenago ez zirelako haien herrien ordezkariak NUKFen.
 - c) Exekuzio-batzordean parte hartuko dutenak, beraz, askotan aurretik aukeratzen dira eta konfederazioko asanbladatik kanpo.
 - d) Ez ditu lan proposamenak eta pertsona zehatzen konpromisoak bultzatzen; NUKF barruko karguen banaketa sustatzen du, betiere bozka gehien eskuratu dituzten alderdien artean, Nafarroako Gobernuia sustengatzen dutenak, hain zuzen ere.

2. Federazioaren gobernu atalak hautatzeko Batzarraren autonomia indartzea.

- Udal hauteskundeen ondoren Batzarreko partaide berriek ekimenak, ezagutza eta interesak elkarrekin aldatzeko aukera izan dezaten.
- Exekuzio-batzordeko partaide izan nahi duten hautagaiek beraien arrazoiak hautesleei azaltzeko aukera izan dezaten.
- 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako bozka ponderatuek udalbatzaren aniztasuna aintzat har dezatela.

3. Exekuzio-batzordeko batz bestekoak jaistea bertan dauden bokalek ez-ohiko bilerak deitu eta gai ordenan gaiak sartzeko aukera izateko.

4. Idazkari Nagusiaren figura eta bere hautaketa modua berrikustea.

Parte hartzea

Egungo estatutuek Federazioan dagoen parte hartze maila handitzeko aukera ematen dute. Aukera hori baliatzearekin batera estatutuetako artikuluko batzuk aldatu beharko dira parte hartzea sustatu eta informazio euskarri teknikoak egokitzeko.

Garatu beharreko lana:

1. Exekuzio-batzordeak Udallerri talde ezberdinei eragiten dieten gai zehatzetako sailak sustatuko ditu. Sail hauek itxiko dira arazoa gainditu ondoren.

2. Prozesu parte hartzailea antolatzea:

- Nafarroako Toki Administrazioako uztailak 2ko 6/1990 Foru Legearen eta bere Aldaketen, 2014ko abenduak 2koa barne, aplikazio eta ondorioen diagnosia izateko.
- Lege berria zuzenagoa eta eraginkorragoa izan dadin proposamenak jasotzeko.
- Nafarroako Toki Entitate guztien iritzia jasotzeko eta haien proposamenei bidea emateko.

3. Exekuzio-batzorde eta bazkideen arteko komunikazioa handitzea.

4. Udal eta Kontzejuetako teknikari eta Federazioko teknikarien arteko komunikazioa erraztea.

5. Urtero egiten den Batzar kopurua handituko da Nafarroako eskualde ezberdinetako hautetsien harremana errazteko eta Exekuzio-batzordearen jarraipena areagotzeko.

6. Aurrekontuen lanketarako bazkide eta gobernu atalen arteko harremana erraztea.

7. Kontzejuen lan talde zehatz eta iraunkor bat eratzea beren egoera aztertzeko eta Federazioaren barruan garrantzi gehiago emateko.

Gardentasuna

2014ko bukaera arte Federazioak ez ditu bere bileretako Aktak webgunean argitaratu. Gaur egun Exekuzio-batzordeko aktetatik azaroko 20tik aurrera egindakoen bilerakoak besterik ez da publikatu eta abenduan burutu zen Batzar Orokorrakoa ez da argitaratu ere.

Webgunean akta guztiak eta osoak argitaratu eta bazkide guztiei posta elektronikoen bidez helarazteko konpromisoa hartzen dugu, hala nola hartutako akordioetan oinarritzen diren ikerlanak.

Presidentearen eta exekuzio-batzordeko partaideen ordainsariak eta dietak, kilometrajeak eta abar berrikustea eta ezagutzera ematea.

Integrazioa

Nafarroa komunitate askotariko eta anitza da gizarte, kultura eta ingurune arlotan. Izaera hau errespetatzea oinarrizko gaia da eta Federazioak bere eta berarekin egiten diren harremanak Nafarroako bi hizkuntz ofizialetan, euskaraz eta gaztelerez, egin ahal izatea bermatuko du

- Horretarako euskaldunek Federazioarekin komunikatzeko behar diren baliabideaz hornituko da.
- Concejo aldizkarian euskarari presentzia handiagoa emanen zaio: euskarazko artikuluak agertuko dira beren gaztelaniako itzulpenarekin, eta aldrebes.
- Euskara udal administrazioetan eta hautetsiek erabil dezaten baliabideak jarriko ditu.

Eraginkortasuna

Dirusarrera eta gastuen arteko oreka Federazioak ordaindu ahal dituen zerbitzu hoberenak ematean oinarritu behar dela uste dugu.

- Diru-laguntzak lor ditzaten Udal eta Kontzejuei laguntza eta aholkularitza hobeak eskaintzea landuko da.
- Udal eta Kontzejuei laguntza eta aholkularitza juridiko hobeak eskaintzea landuko da.

- Partzuergo eta Garapen zentroekin Europako diru-laguntzak jasotzeko egiten den aholkularitza lan koordinatuarekin jarraituko da.
- Hurrengo urtetan NUKFaren jardura bideratu eta bere egituraren eta jarduna eraberrituko duen Plan Estrategikoa egingo da